



Arartekoaren Ebazpena, 2007ko otsailaren 27koa; horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio bertan behera utz dezala familia bat Patronatuaren jabetzako etxebizitza batetik joanarazteko hartutako erabakia eta gizarte babeseko neurri egokiak gara ditzala.

Aurrekariak

1. 2005eko abenduaren 22ko bilkuran Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak, “Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren jabetzako eta/edo horri atxikitako pisuen harrera eta erabilera arautzen duen ordenantza” oinarri hartuta, erabaki zuen (...)ean dagoen 2. solairuko ezkerreko etxebizitza, Patronatuaren jabetzakoa, (...) eta (...) jaun-andreei lagatzea.
2. 2006ko abenduaren 13ko ohiko bilkuran, 2007rako gizarte etxebizitzak esleitzea erabaki zuen, udaleko gizarte laguntzaileak aurkeztutako txostenetan oinarrituta. Onuradunak 2006ko pertsona berdinak izan ziren, (...) familia izan ezik. Familia horren inguruan, adierazi zuen etxebizitzatik joanaraziko zela, 2006ko abenduaren 31n kontratua amaitzean. (...) andreak aurkeztutako kexak Batzordearen erabaki hori du hizpide.
3. Joanarazteko erabakia aipatu ordenantzaren 5.5 artikuluan dago oinarrituta; horren arabera, *“Pisuan aldi baterako bakarrik egon ahal izango da; beraz, egonaldia amaitzean, pisua utzi beharko da, honako kasu hauetakoren batean (5. atala): “Nolanahi ere, urtebete igarotzean, datatik datara zenbatuta, pisua erabiltzen hasi edo hartu zenetik zenbatzen hasita”.*

(...) familiak berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu zuen eta adierazi zuen Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua aldi zabalagoetarako lagatzen ari dela etxebizitzak. Orobat, beste datu garrantzitsu batzuk ere eman zituen: beren osasun egoera larria (elbarritasun maila handia zuten); beren adina (beste etxebizitza bat eskuratzea zailtzen duena) eta (...) beren semearen egoera. Bizilekuan, (...) senar-emazteez gain, (...) beren semea bizi da eta honek buru osasuneko arazo oso larriak ditu. Honen bikotekide den (...) andreak eta beren alabak etxebizitzan

haiekin bizitzeko eskatu du, baina horietatik bat bera ere ez dago etxebizitzan erroldatuta.



4. 2007ko urtarrilaren 4an, aipatu errekurtsioa atzera bota zen, honako arrazoi hauengatik: *“Urtebeteko epe hori ez da apetak emanda aipatu; aitzitik, (...) jaun-andreei egindako lagapenaren eraginkortasun epea da”*. Era berean, honakoa gaineratu da: *“Espedientean jasotako txostenetan eta gainerako agirietan oinarrituta, esan daiteke (...) jaun-andreen gizarte egoera ez datorrela bat etxebizitzaren lagapenaren bidezkoatasuna arautzen duen ordenantzako aurreikuspenekin”*. Etxebizitza uzteko epea 2007ko otsailaren 28an amaitzen da.

5. Kexa hau behar bezala izapidetzeko xedez, Arartekoak honako kontu hauen inguruko informazioa eskatu zion Hernaniko Udalari: denboraren irizpidea beste kasuetan nola aplikatzen den (alegia, Patronatuaren gainerako pisuak esleipenean jaso dituzten beste pertsona batzuei horiek erabiltzeko duten denbora eta egun bizi diren pertsonak edo familiak bertan bizitzen hasi ziren data); ea Patronatuak familia beste nonbaiten kokatzea pentsatu ote duen edo ba ote dakien bizigarritasun baldintzak betetzen dituen lekuren bat baduela bizitzeko, hau da, ea Hernaniko Udaleko gizarte zerbitzuek zein jarduera aurreikusi dituzten familia honi dagokionez, familia etxebizitzatik joanarazteko erabakia gauzatzen baldin bada; eta zein prozeduraren bidez erabakitzen den etxebizitzatik joanaraztea (jakinarazpena, entzunaldia...). Azkenik, aipatutako gertakari horien inguruko informazio gehiago izatea ahalbidetzen duen beste edozein alderdi interesgarriren berri ere ematea eskatu genuen.

Udalak espediente osoaren kopia bidali digu eta bere gogoetak helarazi dizkigu. Espedientean jasotako agiriez gain, erantzunak, labur-labur, honela dio. Alde batetik, aipatu dute ordenantza aplikatu dutela eta zein prozedura erabili duten azaldu dute: lagapeneko kasu guztietan, ordenantzak ezarritako epea betetzean edo betetzear dagoenean, oinarritzko gizarte zerbitzuetako teknikariek etxebizitzaren lagapena bidezkoa den ala ez den aztertzen dute eta, horri buruz aldeko txostenik baldin badago eta interesdunak lehendik etxebizitza bat baldin badute, lagapena berriro egiten da. Adierazi dute (...) jaun-andreek ez zituztela betetzen aplikatu beharreko ordenantzan ezarritako baldintzak. Erantsi dute familia batek gizarte etxebizitza aldi baterako lagapenean jaso ahal izateko gizarte egoerak, egoera fisiko eta ekonomikoak edo bestelako edozein inguruabarrek ez duela edozein motatako lege edo ordenantza betetzetik salbuesten, ezta gainerako herritarrekin behar bezala jokatzetik ere. Horregatik, ondorioztatu dute familiak inolako konpromisorik bere gain hartu gabe jaso nahi dituela laguntzak. Amaitzeko, adierazi dute Patronatuak aukera eman ziela zaharren egoitzara joateko, baina uko egin ziotela.



6. Erantzunari erantsitako espedientean, Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordearen erabaki bat dago, 2006ko urtarrilaren 12ko ezohizko bileran hartutakoa, eta, bertan, familia etxebizitzatik joanaraztea adostu zen. Horretarako arrazoiak ziren (...) familiak ez zituela udal etxebizitzaren onuradun izateko eskakizunak betetzen, gizarte txostenen arabera, familiak ez baititu onartu gizarte zerbitzuen proposamenak, auzoan ere ez da integratu eta Ertzaintzak ere esku behar izan duela gainerako bizilagunek hala eskatuta. Kasu honetan, Batzordeak onartu egin zuen aurkeztu zen berraztertzeko errekurtsioa eta, beraz, 2006an, (...) familiari etxebizitzaren lagapena luzatu zitzaion. Familiak emandako arrazoiak bai prozedurarekin (hots, alegazioen izapiderik egon ez zelako) bai funtsarekin (famili egoera eta egoera pertsonala eta etxebizitzarik eza kontuan hartu behar zirela) zuten zerikusia.

Erantzunari erantsi zaion espedienteko gizarte txostenetatik ondoriozta dezakegu azken urteotan familiaren gizarte baldintzak ez direla aldatu, ezta ostatu eta gizarte beharreko premiak ere. Kontuan izan behar da gizartean esku hartzeko jarduna jada 1999an hasi zela. Gizarte zerbitzuek egindako balorazioan eta proposamenean jakinarazten da gizarte marjinazioari lotutako familia dela eta ez duela inolako gizarte trebetasunik batere, besteak beste, informazioa, gizarteko parte-hartzea, gizarte onarpena eta antolaketa. Gainera, aipatzen da auzotarrek kexak aurkeztu dituztela, Ertzaintzak esku hartu duela eta gizarte arauak alde batera utzita jokatzen dutela. Ebazpenean aipatzen diren eta bete ez diren gizartean esku hartzeko arloaren proposamenak ondorengo hauek dira: tratamendu medikoen pean jartzea, beren kabuz etxebizitzak bilatzea edo metatutako zorrei aurre egitea.

Gogoetak

1. Aldez aurretik beharrezkoa da etxebizitzaren lagapena erregulatzen duen araudia aztertzea. Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren jabetzako eta/edo horri atxikitako pisuen harrera eta erabilera arautzen duen ordenantzak honakoa dio 2. artikuluan: *“Pisu horietan famili unitateak hartuko dira denboraldi batez, betiere, horiek gutxienez urtebetez. Hernanin bizi izan badira eta etxebizitza-behar larrian baldin badaude, salbuespenezko arrazoiak direla medio eta eurek eragindakoa izan gabe”*. 3. artikulua famili unitatearen salbuespenezko arrazoiak eta eurek eragindakoa ez direnak zeintzuk diren adierazten ditu, ordenantza honen ondorioetarako. Horien artean, honako hauek daude:

...



e) 65 urtetik gorakoak, burujabetasun maila onargarria baldin badute eta autonomia-mailaz gozatu nahi badute, betiere, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren tutoretza eta laguntza teknikoarekin.

f) Berez moldatzen diren pertsonak edo norbere autonomia nahikoa dutenak, bakarrik edo abandonatuta baldin badaude edo beren etxebizitza egoera txarrean edo arrisku egoeran baldin badute, eta gatazka psikologikoak eta familiakoak baldin badituzte edo euskarririk ez badute.

g) Gizarteratze prozesuan dauden familiak.

...

3. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat betetzeaz gain, baliabide ekonomikorik gabe egotea egiaztatu behar da.

(...) familiak ez du baliabide ekonomikorik. Beren adina ((...)k 63 urte ditu eta (...)k 73), beren elbarritasuna (% 82koa eta % 67koa, hurrenez hurren) eta gizarte baliabide eta trebetasunik eza kontuan hartuta, gizarte bazterkeriako egoeran daude eta zailtasun handiak dituzte ostatua bilatzeko gizarte babeseko sistemetara jo gabe. Beren bizitzaren historia ere eztaba daezina da zentzu horretan. Familiaren diru-sarrerak bakarrik bai (...)k bai (...)k jasotzen duten kotizazio gabeko pentsioari eta banakako laguntzari dagozkien prestazioak dira, guztira, beraz, 610 bat euro hilean. Gainera, buru osasuneko arazoak dituen (...) semea dute euren kargu. Euren kabuz beste etxebizitza bat lortzeko dituzten zailtasunak eta familiako kideek elkarri laguntzeko beharrak direla medio, baita kultur kontuak ere (ijitoen kulturaren, familiak duen eginkizunarekin erlacionatutakoak), familiarentzat lehentasuna du etxebizitza izateak eta kideak elkarrekin bizitzeak. Bestalde, familiari egin zaion menpekotasunaren balorazioaren arabera (Sakontzen), pertsona autonomoak dira, hasiera batean, ez bailukete zertan egoitza batean sartu beharrik.

Familia aurretik beste etxebizitza batean bizi zen, (...)ko 13.ean kokatuta dagoen 3. solairuko ezkerrean, hori ere Patronatuaren jabetzakoa. Pisu hori ere araudi berdinarekin pean laga zen.

Azken batean, familiaren gizarte inguruabarrak ez dira aldatu eta, beraz, ordenantzan ezarritakoa betetzen du.

2. Ordenantzaren 5. artikuluan pisua utzi behar izateko kasuak aipatzen dira. Horien artean, honako hauek daude: etxebizitza bat atzera eskuratzea edo lortzea,



kanporatzea (4. atala), pertsonen ordenantzaren 6. eta 7. artikuluetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badituzte eta debekatutako jarduerak garatzen badituzte; eta, azkenik, (5. atala), eta edonola ere, urtebete igarota, datatik data, pisua erabiltzen hasi edo hartu zenetik zenbatuta. 2005ean joanarazteko erabakia 4. atalean oinarrituta egon zen, alegia, ez zituztela beren betebeharrak bete eta debekatutako jarduerak garatu zituztela. 2006an, ordea, 5. atalean oinarrituta egon da, alegia, urtebeteko epea igaro dela.

Atal bat edo beste aplikatzearen arteko aldea da, 4. atalari dagokionez, kanporatzeko prozedurari emango zaiola hasiera, 8. artikuluan araututa dagoena; horren arabera, prozedura horretan kudeatzaileak txostena egingo du eta onuradunari entzun egingo zaio. Aldiz, 5. atalari dagokionez, ez da inolako prozedurarik aurreikusi. Era berean, 4. atalari dagokionez, Patronatuak 6. eta 7. artikuluan aurreikusitako betebeharrak ez direla bete eta debekatutako jarduerak garatu direla adierazi eta oinarritu behar du. Horretarako, froga-ahalegin handiagoa egin behar du Patronatuak.

Espediente hori irakurri ondoren ikus daiteke, Zuzendaritza Batzordeak 5. atalean oinarritu duen arren joanarazteko erabakia, hau da, epea igaro dela, aipatu ere egiten duela (...) familiak ez dituela ordenantzan jasotako betebeharrak bete. Hala ere, ez dute zehazten zein jardun izan diren ordenantza ez betetzea eragin izan dezaketenak; aldiz, oro har jartzen da zalantzan familiaren jokabidea. 8. artikuluan aurreikusitako prozedura ere ez du aplikatzen. Bestalde, joanaraztea erabaki zuen 2006ko urtarrilaren 12ko Batzordearen erabakiak ematen zituen arrazoien artean, familiaren jokabidea aipatzen zen erabakiaren oinarri gisa, nahiz eta hori, esan bezala, azkenean ez gauzatu. Kontu hori garrantzitsua iruditzen zaigu, horrela zehaztasun handiagoz ezagutu baititzakegu zerk eragin duen kexa honen xede den joanarazteko erabakia hartzea eta zergatik ez den egokitu prozedura arrazoi horietara. Bada beste datu garrantzitsu bat ere; hots, etxebizitzan gainerako esleipen hartzaileek etxebizitzan ematen duten denbora berriaz adierazi ez zaigun arren, erantzunarekin batera bidalitako espedientean jaso den agiri batek dio 2006an familia jakin batzuei etxebizitza lagapenean eman zaiela eta 2007an lagapena luzatu zaiela guztiei, (...) familiari izan ezik. Gainera, Zuzendaritza Batzordearen 2005eko abenduaren 22ko erabakiaren akta dakarren beste agiri batean ondoren aipatuko ditugun esku-hartzeak jasotzen dira: *“XXX-(e)k hitz egin du eta etxebizitzak erabiltzen ari diren familiak berrikusteko eskatu du; bere ustez, etxebizitza horiek ez lirateke behin betiko etxebizitza gisa erabili behar eta hainbat familiak urteak daramatzate horietan bizitzen.*



Kudeatzaile jaunak jakinarazi du, hain zuzen ere, Patronatuaren jabetzakoak diren eta/edo horri atxikita dauden etxeetan bizi diren familia gehienak urte asko daramatzatela horietan bizitzen. Era berean, adierazi du ez dela betetzen ari ordenantzaren 5. artikuluko 5. puntuan ezarritakoa [...]

Hori ikusita, batzordeburuak hitzeman du aukerak aztertu eta proposatuko dituela Patronatuaren jabetzakoak diren gizarte etxebizitzaren erabileraren inguruan.”

Horretan guztian oinarrituta, ondoriozta daiteke esleipen hartzaile suertatu ziren familiek denbora asko daramatela pisu horietan bizitzen.

3. (...) familia etxebizitzatik joanarazteko erabakia ordenantza batean oinarrituta hartu da. Honelako administrazio egintza batek ez du soilik araudi zehatza aplikatzearen ondorio izan behar, baizik eta hura babesten duen lege mailako arauan oinarrituta egon behar du. Kontrako egintza guztiak lege erreserbaren printzipioaren pean daude; hau da, administrazio erabaki baten kontrako eduki orok lege babesa behar du. Horrek esan nahi du zuzenbideko printzipio orokorreari eta oinarrizko eskubideei men egin behar dietela, ordenamendu juridikoaren parte baitira haiek ere. Hortaz, ordenantzan jasotako araudian oinarrituta dagoen joanarazteko erabakia berdintasun printzipioari lotu behar zaio (zuzenbideko printzipio orokorra izateaz gain, oinarrizko eskubidea ere badelako), baita diskriminazio debekuari ere.

Batzordeak (...) familiaren kasuan bakarrik hartu du joanarazteko erabakia urtebeteko epea igaro delako, eta, beraz, desberdin tratatu da etxebizitzaren gainerako esleipen hartzaileekiko. Ordenantza esleipen hartzaile guztiei aplikatu behar zaie. Guztiek daramate urtebete baino gehiago etxebizitza horietan, baina (...) familiak bakarrik utzi behar du etxebizitza. Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua honela dio: *“Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta”*. Berdintasun printzipioari jarraiki, pertsonen edo egoeren tratamendu desberdinak behar bezala justifikatuta egon behar du. Administrazioak berdinean aplikatu behar du arautegia. Hau da, antzeko irizpideak erabili behar ditu arautegia antzeko kasuak ebazterakoan aplikatzeko. Litekeena da, kasu honetan bezala, arauak bideren bat zabaltzea izateko kasuan (4.5 artikulua: *“Edonola ere, urtebete igarota, pisua erabiltzen hasi edo hartu zenetik zenbatuta”*). Zabaltze horrek zuhurtziaz jardutea ahalbidetzen du. Horregatik, garrantzitsua da neurri berdinek hartzea antzeko kasuetan, horietako familia askok aldi baterako lagatuko pisuetan bizitzen

jarraitzen baitute. (...) familiari ere tratamendu bera eman beharko litzaioke: egoera bera, ondorio berdinak. Horrela, inpartzialtasun printzipioa aplikatzen dela eta jarduera arbitrario subjektiborik ez dagoela bermatzen da. Administrazioak objektibotasunez babestu behar ditu interes orokorrak (KEren 103. artikulua). Horrek esan nahi du inpartzialtasuna eta neutraltasuna bakarrik espero behar direla. Tratamendu desberdina behar bezala arrazoitu behar da, kasu honetan egin ez dena; Auzitegi Konstituzionalak adierazitakoaren arabera (Auzitegi Konstituzionalaren martxoaren 8ko 34/2004 Epaia): *“Auzitegi honek hainbatetan adierazi izan duen moduan, tratu ezberdintasun guztiek ez dute Konstituzio Espainiarraren 14. artikulua urratzen. Berdintzat har daitezkeen egoeren artean aldea sartzen duen ezberdintasunak urradura dakar, horretarako justifikazio objektibo eta arrazoizkoa ez badago. Beste era batera esanda, berdintasun printzipioak izatezko suposamendu berdinei ondorio juridiko berak aplikatzea exijitzen du. Bi egoera berdintzat hartuko dira ezberdintasunerako elementuak modu arbitrarioan edo arrazoirik gabe sartu direnean”*.

Azken batean, justifikaziorik gabeko tratu desberdintasuna egon dela ondorioztatzeko, beharrezkoa da egoerak alderatzea eta aldea juridikoki baloratzea. Patronatuaren jabetzako pisuak erabiltzeko esleipen hartzaile suertatu diren pertsona guztiek urtebete baino gehiago daramatzate. Zuzendaritza Batzordeak familia baten kasuan bakarrik erabaki du urtebete igaro delako utzi behar duela pisua. Egoera bera izanda, ondorioa desberdina da eta, beraz, berdintasun printzipioa urratu da. Administrazioak bere jarduera guztiak arrazoitu behar ditu. Kasu honetan arrazoia urtebete igaro dela da eta, beraz, tratu desberdintasunak ez du inolako justifikazio objektibo eta arrazoizkorik. Bere jarduera arrazoitzerakoan, Administrazioak ez du aipatu familiak ordenantzan ezarritako betebeharrak bete ez dituenik eta debekuak errespetatu ez dituenik, bere erabakiak familiaren jokabidearekin zerikusia duela aditzera ematen duen arren. Administrazioak hori frogatu beharko zukeen eta ordenantzaren 8. artikuluan aurreikusitako prozedura aplikatu, baina, esan bezala, ez da horrelakorik egin.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 53. artikuluan hau xedatzen da: *“Herri-administrazioen egintzak, beren kabuz nahiz interesdunak eskaturik emandakoak, eskumena duen organoak gauzatuko ditu ezarritako prozedurari jarraituz. Egintzen edukia ordenamendu juridikoan ezarritakoari lotuko zaio, zehatza izango da eta egintzon helburuei egokitua”*.

Arartekoaren eginkizunetako bat organo eskudunei, funtzionarioei edo beren buruei gomendioak egitea edo dagozkien legezko betebeharrak gogoraraztea da, legez kontrako eta bidegabeko egintzak zuzentze aldera. Herritarren eskubideak



babesten ditu euskal administrazio publikoekiko beren harremanetan. Horregatik, erakunde honen ustez, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak familia hori joanarazteko hartu duen erabakia ez dator bat ordenamenduarekin, berdintasun printzipioa urratzen baitu eta desberdintasun egoera eragiten baitu. Lehen aipatutako legearen 62. artikulua aplikatuz, erabat deusezak izango dira Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten dieten egintzak. Kasu honetan, kaltetutako eskubidea EKren 14. artikuluan ezarritako berdintasunerako eskubidea da.

5. Azkenik, garrantzitsua da aipatzea jasotako informaziotik ezin ondoriozta daitekeela etniagatiko bereizkeria egon denik. Hala ere, elementu garrantzitsutzat jotzen dugu, familia honen kasuan gauzatu den esku-hartzea baloratzeko. Ijitoen inguruabar sozial eta historikoen eta jasan behar izaten duten bereizkeriak beharrezko egiten dute horrekin guztiarekin bat datorren esku-hartzea gauzatzea. Horren ildotik, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako EAEko Planak honako helburu hauek dituzten jarduerak biltzen ditu gizarte gaien arloan: ijito herriaren egoerari buruzko ezagutza zabaltzea (3.4.1), esku-hartzearen arloko praktika egokiak ezagutzea (3.4.3), bitartekotza-lanak erraztea (3.4.4.2), gizarte zerbitzuei buruzko informazio ekintzak egitea (3.4.4.3), gizarte zerbitzuen eremuko informazio dokumentazioan erabilitako lengoia egokitzea denentzat ulergarria izan dadin (3.4.4.5), etab. Era berean, etxebizitzaren arloan ere hainbat ekintza ezarri dira: etxebizitza eskuratzeko aukerak eta etxeen baldintzak hobetzea (3.7.1), etxebizitza zaindu eta mantentzeko eta komunitatearen arauak betetzeko laguntza-ekintzak garatzea (3.7.2.3), etab. Gainera, hainbat konpromiso hartu dituzte orobat beste instantzia batzuek, nola erkidegokoek hala nazioartekoek; horien bidez, garbi geratzen da ijitoak baztertuta bizi direla eta beharrezkotzat jotzen da ekintza positiboko neurriak hartzea desberdintasun eta bereizkeriako egoerak konpentsatze aldera. Horien artean, garrantzitsua da aipatzea gutxiengo nazionalen babeserako Esparru Hitzarmena. Dokumentu hori Estrasburgon sinatu zen 1995eko otsailaren 1ean eta Espainiak berretsi egin zuen 1995eko uztailaren 20ko instrumentu bidez (1998ko urtarrilaren 23ko BOE). Estatuak, Hitzarmen hori berrestean, ijito herriaren babesaren ardura bere gain hartzeko konpromisoa hartu zuen, Hitzarmenean ezarritakoari jarraiki. Horrek diskriminazioaren eta gizarte bazterkeriaren aurka borroka egiteko konpromisoa hartzea dakar. Egoera hori ijito herriaren zati garrantzitsu batek bizi du.

Esparru Hitzarmenean jasotako ezarpenen artean, honakoa azpimarra daiteke (4. art.):



“Aldeek konpromisoa hartzen dute gutxiengo nazionalerako pertsonen legearen aurreko berdintasuna bermatzeko, eta legearen aldetiko berdintasuneko babesak ziurtatzeko. Horrela, gutxiengo nazional batekoa izateagatik diskriminazioa debekatuko da.

2. Aldeek, beharrezkotzat jotzen denean, neurri egokiak hartzeko konpromisoa hartzen dute, bizitza ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalerako esparru guztietan erabateko berdintasun eraginkorra sustatzeko gutxiengo nazionalerako taldean eta gehiengoarenean artean. Horri dagokionez, gutxiengo nazionalerako pertsonen ezaugarri zehatzak hartuko dira kontuan.

3. 2. atalarekin bat etorritik hatutako neurriak ez dira diskriminazioko ekintzat hartzen” .

Aipatu beharrezkoa da baita ere, duen garrantziagatik, EKren 9.2 artikulua. Xedapen horretan dago oinarrituta administrazioak esku hartzeko duen betebeharra pertsonen eta horiek hartzen dituzten taldeen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin lortzeko: *“Botere publikoari dagokien inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezkeen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomi, kultur eta gizarte bizitzan ere (9.2 art.)”.*

Aurreikuspen horiek Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako EAeko Planean gauzatu dira gure erkidegoan.

Hortaz, horrek esan nahi du badagoela esparru juridiko bat eta administrazio plangintza bat ijitoen komunitateari dagokionez neurriak hartu eta jarduerak garatzeko. Hortaz, ziurtatuta dago familia honen inguruko esku-hartzeak aurrera jarraituko duela. Hala ere, familia honen gizarte inguruabarrak ikusita, lagapena ez berritzea erabakiz gero, familia babesik gabe geratzea saihesteko neurriak hartu beharko lirateke, une honetan bizi duen egoera eta etxebizitza eskuratzeko dauden egungo zailtasunak aintzat hartuta, bereziki, ijitoen kasuan, ia-ia ezinezkoa izango bailitzateke beren kabuz etxebizitza egokia aurkitzea. Horrez gain, esan behar da, aipatu den bezala, familia hau etxebizitzatik joanarazteko erabakiak beharrezko baldintzak bete beharko lituzkeela juridikoki baliozkoa izateko eta babesgabetasuna ez eragiteko.



Hori guztia dela-eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egin dugu:

6/2007 GOMENDIOA, otsailaren 27koa, Hernaniko Udalari egindakoa.

Indarrik gabe uztea (...) jaun-andreek Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren jabetzakoa den etxebizitzatik joanarazteko Zuzendaritza Batzordeak hartu duen erabakia, erabat deuseza delako eta, ondorioz, 2007an familia honi lagapena luza diezaiola.

Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako EAEko Planean nahiz gizarte egoera ahuleko taldeen sustapenerako beste tresna batzuetan jasota dauden eta familia honen inguruko esku-hartzeari aplikagarri zaizkion udalen erantzukizuneko jarduerak gara daitezela.